



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK 18 MILIOI EUROKO ISUNA EZARRI DIE EUSKADIKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO JANGELEN ZERBITZUAREN ZORTZI ENPRESA ESLEIDUNEI, MERKATUA BANATZEAGATIK

Lehiaren Euskal Agintaritzak erakutsi egin du bere ebazpenean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak lizitatzen dituen ikastetxe publikoetako jangelen zerbitzuaren loteak banatu egin zirela hamar urtean, gutxienez.

Merkatua banatzea Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aurkako arau-hauste oso larria da. Lehia ez egoteak kostu handiagoak ekarri dizkie gobernuari eta familia erabiltzaileei. Espedientea ireki eta hurrengo urtean egiaztatu da zerbitzuaren kostuak zazpi milioi euroko beherapena izan duela.

Isun hau Lehiaren Euskal Agintaritzak bere ibilbide osoan ezarritakoetako altuena da. Hala ere, perspektibaz ikusi behar da, ikertu den aldiko kontratuaren aurrekontua 854 milioi eurokoa izan baita.

BILBO, 2016ko otsailaren 9a

Lehiaren Euskal Agintaritzak isun bat ezarriz itxi du ondoko espedientea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak lizitatzen duen jangela publikoen zerbitzuaren enpresa esleiduneiri irekitako espedientea. Ebazpenak frogatutzat hartu du merkaturatu banatu zela hamar urtean, gutxienez. Hitzartutako jardunbide horrek kalte handia egin die diru-kutxari eta zerbitzuaren erabiltzaileei.

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) bere ebazpenean azpimarratu du ikertutako urteetan loteen esleidunak izan ziren zortzi enpresen jokabidea Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aurkako arau-hauste oso larria dela. Legeak debekatu egiten ditu akordio oro, erabaki edo gomendio kolektibo oro, edo hitzartutako jardunbide oro, horien helburua merkaturatu lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada edo izan badaiteke.



Horregatik, LEAk honako isun hauek ezarri dizkie ikertutako enpresei:

- AUZO LAGUN S.COOP. enpresari, 6.108.446,14 €.
- COCINA CENTRAL GOÑI, S.L. enpresari, 522.879,45 €.
- COCINA CENTRAL MAGUI, S.L. enpresari, 775.827,97 €.
- EUREST COLECTIVIDADES, S.L enpresari, 6.640.713,75 €.
- EUREST EUSKADI, S.L. enpresari, 135.497,70 €.
- TAMAR LAS ARENAS, S.A. enpresari, 1.108.347,80 €.
- GASTRONOMÍA CANTÁBRICA, S .L. enpresari, 1.626.662,40 €.
- GASTRONOMÍA VASCA, S.A. enpresari ,1.546.226,78 €.

Isunen kalkulua egiteko kontuan hartu egin da arau-hauste oso larria egin duen enpresak isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan duen negozio-bolumenaren ehuneko 10era arteko isuna ezartzea baimentzen duela Lehiaren Defentsari buruzko Legeak. LEAk isunak kalkulatu ditu ondokoak hartuz oinarritzat: enpresa bakoitzaren negozio-bolumena; zer nolako parte-hartze izan duen bakoitzak arau-haustean; hamar urtean jokabide berbera eduki izana; kontratu hauek duten pisua enpresen fakturazio osoan; eta erasandako merkatuaren garrantzia. Horiek guztiak kontuan hartua, enpresen negozio-bolumenen % 3,05etik %7,40ra bitarteko isunak ezarri dira.

Ikertutako gertakariak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak urtebeteko lizitazioak iragarri zituen jangelen zerbitzua emateko, 2003tik 2014ra arte. Lizitazioen prozedurak bi fase zituen: lehenengoan, enpresek zerbitzua emateko euren gaitasuna egiaztatu behar zuten; bigarrean, lehia egin behar zioten elkarri, lote bakoitzaren kontratuta irabaztearren.

Zehatutako 8 enpresak prozeduraren lehenengo fasea gainditu zutenak izan ziren eta, ondorioz, loteak eskuratzeko lehiatu ahal ziren bakarrak.

LEAK frogatutzat hartu du hamar urtean, gutxienez, zehatutako zortzi enpresek uko egin ziotela gaitasuna zuten lote guztietan lehiatzeari, eskaintzak aurkeztu zituztelako portaerazko jarraibide antolatu batzuen bidez, loteen banaketa lortzearren.

Hori eginez, zehatutako enpresek ikertutako urte guztietan jokabide bat egin zuten ondokoaren bermea izateko: enpresa bakoitzak jangelen lote berean



ematea zerbitzua eta prezioak gorantz aldatzea, hitzartutako jardunbideari esker.

Merkatu hau oso garrantzitsua da, prezioen eta baldintzen aldaketek biztanleriaren zati handi bati erasaten diotelako. Halaber, kostuak Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu, era zuzenean (aurrekontuaren %35) eta zeharkakoan (ikasleei ematen zaizkien diru-laguntzak).

Denboraldi horretan lehia ez egoteak lehia asketik datozen zerbitzuaren prezio eta kalitatearen aldean onuradunak izatea eragotzi die lizitazioak iragartzen ditu administrazioari eta familiei —ikastetxe horietara seme-alabak bidaltzen dituzten eta eskolako menuaren zati bat ordaintzen duten familiei—.

Zehatutako jokabideak kontratazio publikoan hain aldaketa sofistikatua egiteak ezohiko eta legez kontrako mozkin bana ekarri die enpresei, baita kalte handia interes orokorrari ere.

2015-2016 ikasturtean —espedientea ireki eta gero— egin den lehiarako irekiera mugatuak 7 milioi euroko aurrezki bat sortu du, zerbitzuaren kalitatea kaltetu gabe. Ikertutako hamar ikasturteetan Hezkuntza Sailak 854 milioi euro ordaindu zituen zerbitzu hori emateko.

Lehiaren Euskal Agintaritzza Administrazioiko izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde- eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.